

Areatzako udalerrian gazteek alokairuko etxebizitzak eskuratzeko 2018rako diru-laguntzak.

XEDAPEN OROKORRAK

Lehenengoa.—Deialdia

Honen bitartez, Gazteei zuzendutako Etxebizitzen alokairurako diru-laguntzen deialdia egingo da.

Bigarrena.—Deialdiaren erregimenaren helburua eta justifikazioa

Hauk dira deialdi honen helburuak:

- Gazteei babesa ematea euren emantzipazio prozesuan eta helduen mundura sartzeko unean.
- Areatzako leku guztietan alokairuko etxebizitza eskuratzeko aukera ematea gazteei.

Hirugarrena.—Aurrekontua

2018. urtean deialdi honetarako aurreikusitako kopuru globala 6.000 eurokoa da.

Laugarrena.—Xedea

Laguntza hauen xedea da ohiko egoitza gisa alokairuko etxebizitza Areatzako udal mugartean duten gazteen alokairuaren zati bat ordaintzea.

Diru-laguntza oinarriotan ezarritako baldintzen arabera emango da, onuradunak 2018. urtean izandako alokairu-gastua kontuan hartuta.

Ez dira kontuan hartuko eranskinei (garajea edo trastelekua) dagozkien alokairuak, ez eta komunitate eta administrazioko gastuak edo kontribuzio eta zerga kontzeptu pean sortutako gastuak ere, kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuaren hileko kuotatik 30 euroko balio finkoa deskontatuko da, aurreko paragrafoan deskribatutako eranskin edo komunitateko gastu bakoitzeko, baldin eta alokairuko kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik ematen.

Bosgarrena.—Onuradunak

Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldiarekiko kargurako laguntzen onuradunak instantzia hau aurkezteko unean ondorengo baldintza zehatzak betetzen dituzten pertsonak edo elkarbizitza unitateak izango dira:

- Elkarbizitza Unitateko pertsona guztiak 18 eta 35 urte bitarteko adina izatea, Elkarbizitza Unitatearekin batera bizi diren menpeko adin txikikoen kasuan izan ezik.
- Jabetza peko etxebizitzarik eta haren gaineko gozamen eskubiderik ez edukitzea, ez eskaera egin den egunean ez diruz lagundua izango den epealdian, ez eskaera egin aurreko bi urteetan.

Eskatzaileek gainontzeko beharkizunak betetzen badituzte, honako salbuespenak onartuko dira, azken atalean:

- Judizialki etxebizitza bat atxikitzea beste bikotekideari, banaketa edo dibortzio prozesu baten ondoren.
- Bizilekua uztera behartuak izan diren genero indarkeriaren jasandako emakumea izatea.
- Titularra etxegabetua izan denean, eta etxebizitza judizialki nahiz notariotzaren bidez adjudikatu bazaio hirugarren mailara arteko ahaidetasun loturarik ez duen norbaiti.
- Alegia, etxebizitzaren jabetza soila denean, eta beste norbaitenak, gozamina eta erabilera.
- Herentzia edo dohaintzaren baten kariaz, etxebizitza bat edo gehiagoren jabekide izatea, jabekidetasun portzentajeak ez badu % 50 gaintzen, ez eta partizipazioek 75.000 euroko balioa ere.
- Elkarbizitza Unitateko pertsona guztiak diruz lagunduko den etxebizitzan erroldatu beharko dira, kontratua formalizatu ostean. Eta hori laguntza jaso baino lehen egiaztatu beharko dute.
- Elkarbizitza Unitatea osatzen duten pertsonetako bat gutxienez Areatzako udalerrian egon beharko da erroldatuta, gutxienez 5 urteko etenik gabeko antzintasunarekin eskaera aurkezten den unean.
- Bizikidetzaren diru-sarrerak ezin izango dira 35.000 euro gordin baino gehiago urtean, eta 2018 urteko lanbidearteko gutxieneko soldata baino gehiago izango dira.
- Diru-sarreraren osaketari dagokionez, betetako azken zerga-ekitaldiko kapital errentetatik eratorritako errendimendu gordinen zenbatekoa ezin izango da izan 1.600,00 eurotik gorakoa urteko.
- Elkarbizitza Unitateko kide guztiak Areatzako Udaleko zerga, tasa, ariel eta zehapenak ordainduta izan behar dituzte.
- Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean ez egotea inongo lotura familiarrik errentatzailearekin, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.
- Elkarbizitza Unitateko edozein kidek laguntza hau eskuratu badu 5 urtetan zehar, bakarrik izango dute jasotzeko eskubidea

aurrekontu-kreditu erabilgarria badago eskaera berriak erantzun eta gero. Saldo hau proportzionalki banatuko da paragrafo honetan deskribatuta dagoen egoeran agertzen diren eskaerak.

Seigarrena.—Diru-laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren %50ekoa izango da, komunitateko eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak deskontatuta.

Diru-laguntzaren gehieneko kopurua baremo honen bitartez zehaztuko da, Elkarbizitza Unitateko sarrerak kontuan hartuz:

- 20.000 € arte: 200 €/hil.
- 27.500 € arte: 150 €/hil.
- 35.000 € arte: 100 €/hil.

Dirulaguntzen zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidari esleitutako zenbatekoa gaituzten badu, zenbateko hori dirulaguntza guztien artean banatuko da.

Zazpigarrena.—Etxebizitzek bete beharreko baldintzak

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Areatzako udal mugartean egon behar da.

2. Nahiz eta Areatzako udalerrian kokatu, honako hauek ez dira programan sartuko:

- Sustapen publikoko babes ofizialeko etxebizitzak.
- Berrakurak.
- Logelen alokairuak (logela eskubidea).
- Etxebizitza gisa erabilitako lokalak.
- Bizigune programa barruan dauden etxebizitzak.

3. Etxebizitza alokatzearen kostua ezin izango da izan 600 euro baino gehiagokoa hileko (eranskinak barne).

Ez da onartuko urte 1 baino iraupen txikiagoa duen kontraturik.

Zortzigarrena.—Dokumentazioa

1. Instantziarekin batera, eskatzaileek dokumentazio hau aurkeztu behar du:

Erantzukizunpeko aitortzea, honakoak adieraziz: alokatu den etxebizitzan bizi d(ir)en pertsona(k); helburu bererako aitortuta dituzten diru-laguntzen kopurua.

- Elkarbizitza Unitateko kide diren eta 14 urtetik gora dituzten pertsona guztien NANaren fotokopia eta indarrean dagoen egoitza-

txartela edo pasaporte. 14 urtetik beherakorik balego, Familia Liburuaren fotokopia ere eman beharko da. Azken dokumentu hori kasu guztietan aurkeztu beharko da senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.

- Etxebizitzaren jabe ez izatearen ziurtagiria, jabetzaren erregistroak emandakoa, elkarbizitza unitatean bizi diren 18 urtetik gorako kide guztientzako laguntza eskaera eman baino 15 egun lehenagokoa.
- Etxebizitzaren alokairu kontratuaren kopia.
- Elkarbizitza unitatean bizi diren eta 18 urtetik gora dituzten kide guztien betetako azken zerga-ekitaldiko diru-sarreraren ziurtagiria, kasuen arabera:
 - PFEZ Bizkaian aitortzeko derrigortasuna baduzu edo dagoeneko aitortu baduzu, Udalak datuak zuzenean eskatuko ditu. PFEZ beste administrazio batean aurkeztu baduzu, horren kopia aurkeztu behar duzu.
 - PFEZ aitortzeko derrigortasunik ez baduzu (eta ez baduzu aitortu), honakoak eman beharko dituzu:
- Pentsiodunen edo beka, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituzten kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
- Etxebizitzan bizi diren pertsonen artean errentatzailearekin inongo lotura familiarrik ez egotearen ziurtagiria, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

2. Eskatzaileek berariazko baimena eman beharko diete Areatzako Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean.

Bederatzigarrena.—Aurkezteko epea eta lekua

1. 2018ko diru-laguntzen deialdirako eskaerak aurkezteko epea, argitaratzen denetik abenduaren 28ra arte izango da.
2. Eskaera egiteko, dagokion instantzia aurkeztu beharko da, eta, horrekin batera, aurreko oinarrian aipatutako dokumentazioa gehitu beharko da. Agiriak Udalan aurkeztu behar dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua baimendutako edozein modutan.

Hamargarrena.—Organoak eta ebazpena, prozedura eta epeak

Alkatea izango da ebazteko eskumena duen organoa, eta berak emango ditu ebazpenak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako alde zuzeneko instrukzio ekintzen ostean, termino hauetan:

- Eskerak aurkeztuta, Balioztapen Batzordeak dokumentazioa aztertu eta osorik dagoela egiaztatuko du.
- Eskerak ez baditu deialdiaren baldintzak betetzen, interesdunari eskatuko zaio hamar (10) egun balioduneko gehienezko epe luzaezinean baldintza horiek betetzeko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez bada, eskaera bertan behera utziz joko dela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako terminoetan idatzitako alde zuzeneko ebazpen bidez.
- Eskerak, Balioztapen Batzordearen informazioarekin, alkateak ebatziko ditu, gehienez ere hiru (3) hilabeteko epean, aurkeztu diren egunetik zenbatzen hasita.
- Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskatzaileak ulertu beharko du eskaera atzera bota zaiola.

Hamaikagarrena.—Ordainketa eta justifikazio prozedura

Diru-laguntzaren ordainketa baten egingo da, eskatzaileak dagozkion hileroko ordainketak justifikatu ondoren. Ordainketen ziurtagiriak udal bulegoetan emango dira urte naturaleko abenduaren 15a baino lehen.

Epe hori igaro ostean ez badira ziurtagiriak eman, galdu egingo da diru-laguntza jasotzeko eskubidea.

Ofizios egiaztatuko da elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonak alokatutako etxebizitzan erroldatuta daudela.

Hamabigarrena.—Diru-laguntza jasoko duten pertsonen betebeharrak

Diru-laguntzen onuradunek Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikuluan eta Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendu Orokorra onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren Atariko Tituluaren III. Kapituluaren 3. Atalean jasotako estipulazioak bete behar dituzte.

Hamahirugarrena.—Indargabetzeko arrazoiak

Azaroaren 17ko 38/2003, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 36 eta 37 artikuluek eta aplikagarria den gainontzeko araudiak xedatutako kasuetan zera ondorioztatzen da, alde batetik, gaizki jasotako diru-kopuruen itzultzea, eta bestetik, ezespena.

Hamalagarrena.—Bateragarritasuna

Gazteei zuzendutako alokairurako laguntzak bateragarriak dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik ematen dituzten aldi bereko diru-laguntzekin, baldin eta elkarbizitza unitateak alokairu kontzeptuan jasotzen dituen laguntzen zenbateko osoak ez badu gainditzen errentatzaileari ordaindu beharreko errentaren gehienezko muga.

Kasu horretan laguntzen kalkuluaren arabera esleitutako zenbatekoa murriztuta geratuko da, elkarbizitza unitateak alokairu kontzeptuan jasotzen dituen laguntzen zenbateko osoa ez dadin izan errentatzaileari ordaindu beharreko zenbatekoa baino gorakoa, hilabete bakoitzeko.

Hamabosgarrena.—Argitarapena

Deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratuko da.

Areatzan, 2018ko abenduaren 12an. — Alkatea, Asier García Artetxe.